



ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA



CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA



araba álava
foru aldundia diputación foral

PROBAREN ERREGELAMENDUA

1. Ibilbide berdeak: Arabako Errioxatik Arabako Mendialdera 2023ko azaroaren 5ean egingo da, igandean.
2. Jarduera hau naturan kirola sustatzera bideratuta dago, parte-hartzaileei Bastidatik Urizaharrera bitarteko ingurune naturala erakutsiz.
3. 14 km-ko ibilaldia egingo da oinez, Bastidatik Urizaharreara.
4. Ibilaldia Bastidan hasiko da, 9:45ean.
5. Martxa hau ez da lehiakorra.
6. Ekitaldiaren hasieran, 9:00etan, erakundeak autobus-zerbitzua eskainiko du, hala nahi dutenak Urizaharretatik ibilaldiaren hasierako herrira (Bastida) eramateko..
7. Ibilaldi hau adin nagusiko zale guztientzat da, baita heldu batek lagundutako adin txikikoentzat ere, federazioaren lizentzia izan ala ez.
8. Gehienez ere 200 pertsonak parte hartuko dute, izena eman duten ordenari zorrotz jarraituz.
9. Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute martxaren erregelamendua betetzeko, eta haien zein ibilbidean parte hartzen dutenen bai eta beste erabiltzaileen segurtasuna ere zaintzeko.
10. Aurrez izena emateko inprimakia eta martxaren erregelamendua eskura izango dira www.arabakomendialdea.eus eta www.riojaalavesa.eus webguneetan.
11. Izena emateko modua:
 - Aurreinskripzioak: 2023ko azaroaren 1etik 2ra (online).
 - Ibilaldiaren egunean, Bastidako irteera-gunean, 09:30etik aurrera.
12. Prozesua azkartzeko, gure gomendioa da aldez aurretik, martxaren eguna baino lehen, izena ematea. Hala ere, nahi dutenek martxaren egunean bertan eman dezakete izena, eta orduan bete fitxa.
13. Antolatzaileek eskubidea dute martxaren ibilbidea aldatzeko, edozein arrazoik horretara behartzen badu.
14. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko antolamenduarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik parte-hartzaileek izan ditzaketen egintza eta kalteak, ezta haien objektu pertsonalak lapurtu, galdu edo hondatzeagatik izan ditzaketen kalteak ere. Era berean, antolakuntza salbuetsita dago, osasun arrazoiengatik, ibilaldian parte hartzeak ekar dezakeen edozein kaltetik.
15. Parte hartzen dutenek onartzen dute probatik kanpoko hirugarren bati istripu bat eragin dakiokela, istripu horren erantzukizun osoa haien gain hartuz eta antolakuntza istripu horien ondoriozko erantzukizunetik salbuetsiz.
16. Antolakuntzak istripu-asegurua kontratatuko du parte-hartzaileentzat, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
17. Datu-pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, parte hartzen dutenen datu-pertsonalak probaren inskripzioa eta haren ondoriozko gorabeherak kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, mezu elektronikoa bidali behar da helbide honetara: arabakomendialdea@arabakomendialdea.eus.
18. Irudi-eskubideak. Parte-hartzaile guztiek antolakuntzari eta babesleei baimena ematen diete martxaren testuinguruan egindako argazki edo bideo guztiak libreki erabili eta argitaratzeko.
19. Izena emateagatik, parte-hartzaile guztiek araudi hau onartu eta betetzeko konpromisoa hartzen dute, eta uko egiten diete 849/1993 Errege Dekretuaren arabera ekitaldirako kontratatutako istripu- eta erantzukizun-zibileko aseguruak estaltzen ez dituzten kalte-ordainei.